

EGOERA KRONIFIKATUA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZA-ZENTROAK

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Gizarte bazterketa egoeran dagoen pertsona > Aldi baterako edo egonaldi luzeko ostatu zerbitzua

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Bazterkeria kronikoko egoeran dauden 18 urte edo gehiagoko pertsonak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Bazterketa kronikoa baloratuta.

18 urte edo gehiago.

Errolda (**6 hilabete**).

Zertan datza?

Bazterkeria kronikoko egoeran dauden eta oso hondatuta dauden pertsonentzako zentroak dira, eta egonaldi luzeko ostatua eskaintzen dute, bertan gizarteratzeko jarduerak egin ahal izateko, esku-hartze erritmo pausatuarekin ([2.4.5 fitxa](#)).Egonaldia arreta-plan indibidual bat betetzera baldintzatuta dago.Plan hori bazterketa-egoeran dauden pertsonen ongizate fisiko, psikologiko eta sozialera bideratutako arreta eskaintzen duten profesionalen talde anitz baten laguntzarekin egiten da.

Norentzat?

18 urte edo gehiagoko pertsonak, **baztertze eta hondatze pertsonaleko ibilbide luzea** dutenak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

18 urte edo gehiago izatea.

Aurreko 6 hilabeteetan **EAE**n erroldatuta egotea.

Laguntza-intentsitate ertain edo handia behar izatea.

Gizarteratze-ibilbide baterako **konpromisoa hartzea.**

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.**

Informazio gehiago:

- [Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Araban](#)
- [Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Bizkaian](#)
- [Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)